


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

232n. zenbakia
irai lla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



KEREXETA'TAR JAIME
(EUSKERAZAINTZAKOA)
1917-07-31 / 1998-08-05

- ABADE EUSKALDUNA
- OLERKARI ONA
- ITZULTZAILLE TREBEA
- BILLATZAILLE ZEATZA
- BIZKAIERAREN BULTZATZAGILLEA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1998-99 IKASTU RTEA

OGEITAMAIAKAGARRENA
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 18.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

31² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 18.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

~~- Bilbao Bizkaia Kutxa


Kerexeta Gallastegi'tar Jaime

(Abadea)
(Goian Bego)

Elorrio'n il zan, 1998'garrengo dagonillaren, 4'an, 80 urte ebazala Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artuta

Aren neba-arrebak, M.^á Teresa (Daniel Zubiaren alarguna), Jose M.^á (e), Adrian M.^á O.F.M. (e), M.^á Pilar. C.C. (i?) eta M.² Concepción (4); lobak, Zubia-Kerexeta, Kerexeta -Arana eta Agirre-Kerexeta, eta giñetiko senideak.

Aren arimaren aide OTOITZ egiteko eta gaur, eguaztena, 5a. arratsaldeko zazpiretan, ELORRIOko Sortzez Garbiaren Basilikan izango diran illeta-eleizkizun eta gorpua aurean dalako mezara etorri zaitezela eskatzen dautsuegu.



Kerexeta adiskidea ta lankidea joan jaku oraingo onetan, Elorrio bere errian, dagonillaren laugarren egunean eta 80 urte ebazala.

Idazle ugaria eta arlo askotara sartua izan dogu gure Jaime. Ugaria. Ez dakit ziur eta zeatz zenbat liburu argitaratu dituan, baiña larogeira urreratuko dirala uste dot. Eta ori eldua zala idazten asi zala.

Ez dodaz oraindiño irakurri bere olerkiak, orbelak, baiña beti entzun izan dot olerki onak eta egokiak dirala.

Beste liburu batzuk aitatzekotan, Abizenen ikurrak azaltzen dabezan bost aleak aitatu bear, edo Eleiz-Guraso zan-en idaztiak, baiña Kerexeta'ri osperik aundiena emon dautsoen liburuak Bibliaren itzulpenak eta eleiz-liburuetarako egin dauzan lanak izan dira.

Bizkai'ko euskerara lenengoz eta osoan biblia itzuli dauana Kerexeta izan da eta Batikano'ko II Eleiz-Batzarraren ondoren itzulpen onek emon dauan eta emoten dauan laguntza aundia izan da benetan. Eta ez daigun aitzu Biblia oso ori Bizkai'ko euskeraz argitaratu baiño lenago zelako laguntza emon eban ainbeste eleizatan berak, Aita Santi Onaindia'k lagunduta, euskeratu eban meza-liburu txikiak. Ba-diñok, Kerexeta'k arlo onetan emon dauskun laguntza benetan txalogarria eta eskergarria izan da.

ZER aldizkari onetan aspaldion ez dau idatzi gure Jaime'k, baiña emon dauskuzan laguntza gogoangarri bi aitatu-bearrean gagoz: Berak gertatu euskun lenengo eungarren eta gero berreungarren aleetan argitaratu genduzan aurkibide orokorrak. Lan sakona ta zeatza egin eban.

Eta Bizkai'ko euskereari begira, ezin itzi geinke azaldu barik berak gure euskereari eutson maitasun zintzo ta garbia,

edonoz eta edonon agertu eta euskera au erabilliz ziurtatu eban maitasuna. Ikasi begie beronegandik erdi batuz eta atxez beterik idazten daben ainbeste bizkaitarrek.

Kerexeta'tar Jaime idazle lez ain goragarria, txalogarria eta eskergarria izan arren, ez daigun aitzu lenengo ta bein abade izan zala eta Bizkai'ko euskerearen arloan ainbeste lan egin daben abadeen artean bera dogula nagusietariko bat.

Bere agurraren barru-miña agertzerakoan, iru erakunde aitatu bear dodaz emen, iruretan berak eragin aundia izan daualako: Bilbao'ko EUSKERAZALEAK, Gipuzkoa'ko Tolosa'n bere gizarte-etxea dauan Kardaberaz Bazkuna eta Kerexeta bazkide osoa izan dauan EUSKERAZAINTZA-ERRI AKADEMIA. Iru alkarte oneik Jaunari eskerrak emoten dautsoez Jaimeren bidez euskereari emon dautson laguntza jatorragaitik eta Jaun aundi oneri beretzat betiko zoriona eskatzen dautso.

OLAZAR'tar Martin'ek



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

ASKATASUNEZKO DENBORAREN ERABILKERA

Ez da garrantzibakoa eta bai gogoetagarria gai au gaur. Dana da arineketa, urduritasuna, bidegabekeria, biotz—estura edo larrialdeko denborak, gure jan-edate giza—garai auek; ez dogu denborarik ezertarako be. Eska—bide baten aurrean, ies—egite arina daukagu, bereztasunezko erantzuna emonaz: "EZ DAUKAT DENBORARIK".

Izan be olan da, begitu bestela Bilboko ibilbide nagusian, edo ain Uri garrantziko baten, eta bere—ala konturatuko zarie dana dala arineketa eta arin ibiltea, inork ez daukala denborarik auzokoa agurtzeko be, ezin gara geratu, lantoki, denda, bulegora denboraz eltzea gura ba dogu; eta ori olan—dala, egun baten bai urte osoan be.

Lan—gabe, astitsu ikusten dira beste batzuk ezer egin gabe, eta baleiteke, denbora ori zelan il jakin barik. Danetatik dau gure gizartean. Tabernetan eta cafetegietan gure emakume/gizonak, bai lore—baratz eta zugaztietan. Denbora ori ezer egin—gabe bear dogula? Ezetzik ez dogu esaten. Baina orrek orduok, egunak, ezer egin gabe, "denboraren iltze orrek", emoten dautso zentzurik gure bizitzari?

Esaten dabe, oporraldiko denborak, jan—edateko, suntzitutako denbora biurtu dirala. Gizaki eta senitarte askorentzat, bai. Eta ez da bearrezkoa arnas-denbora ori artzea txarto dauelakoan bizitzaren an—emenka ibiliaz; gelditasuna bear dau gorputzak, bai bakea arimak, eta on da lortu gura doguna bizitzaren neurke-ra aldatuaz.

Gure eguneroko lanaren ondagarrian izan bedi, nai oporraren lasaitasunezko aldian, gizon/emakume adimendun eta aurrerakoiak denboraren on—erabilketa egin bear dau, eta askatasunezko denborarekin geiago. Gure etxe eta gizarteko aberastasuna askoz aundiagoa izango zan zalantzarik gabe, askatasunezko solas denborak obeto gozatzen jaki bagendun.

Neure lagun batek, gaurko politikan guztiz sartuta dagoanak, gogor esaten eustan lengo egun baten: obeto gozatu bear gendula gure askatasunezko denbora, ondo zaindu, batez be jakin ez gero, gure ardurak espainolak bete egiten dabezela, eurekin gorputz bat egiteko, gu izan gabe. Euren arduratan kontuan euki gabe, gure gorputzeko okerkeria eta ez jakitasunean eukitea; ez

dautsie arduratzen gure nortasunak, eta nortasunezko EUSKALDUNA izateaz gutxiago; geiago gura dabe, zuzen edo biurtutako bideetatik ibiliaz, gu ez jakitasunean euki, gizarteak daukan jakiturizko arlo guztietan desagertu gaitazan.

Euskaldunak aske bizi gura dau, eta askatasuna maite dauan—lez, erriakintza be alan maitatuten dau, bere erria inguratzen daben er iakaz batera ondo bizi egiteko. Euskaldunak EUSKALDUN izan gura dau leenengo, eta beste erriekin gero osatu taldea, danon ardurazko bidea obeto ibiltzeko. Ez dau gura inor menperatu, baina bai IPARRAGIRREREN abesti ederra "EMAN DA ZABAL ZAZU" lau aizetara zabaldu.

Asmo ori lortzeko, gure aurrerapide eta kanpo aldiaren ugalketarako alegindu bear da, eta guk aztertu egin bear dogu alegin ori; leenengo, burruka orregaz gure nortasunaren geroko bizia finkatu, bai gure aukera berezia ziurtu daiten; gero! Europako erri guztiakin egijune bat egiten danean, danak batera joan gaitazan, danon artetik, gure EUSKAL izen abizenak dirdiratsu eta ano erakutsiaz.

Berezko ori lortzeko, beste gauzen artean, arrazoizko erabil—aldia egin bear dogu askatasunezko denboragaz; jakin bear dogu, berak bear dauan on—gaitasuna emoten. Zelan? Jakinda adibidez, gure etxean ez daukagula bakarrik sukaldeko—gela, lo—gela, egoteko—gela nagusia....; bai lan—gela, joko—gela, liburu—gela, batu—gela berezi bat, guraso—seme/alabak euskeraz mintza daitezcan eta abar. Gure erriaren arima EUSKERA dal.

Ardurazko lan—orduaren gainera, oraindino geratzen—iakuz askatasunaren denboratik ordu asko. On—jardurazi egiten doguz? Zeozer irakurten dot? Garrantziko izketaldietara joaten naz? Edo laguntzen alegintzen naz, txikerra izan arren, batzoki elkarteko arloan edo lagun—arteko solas—billeratan? Edo, urrez—bereziko ordu auek ilten dodaz ardan—etxe artetik egurasten ibilliaz? Zer egiten dot gainezko ordu orreikin? Gure erriko askatasunak eskatzen dauan neurrian, ordaintzen dautsot dagokianez?

EUSKALDUNA! ez bekizu izan gauza garrantzi—bakoa zure askatasunezko denboraren erabilketa aztertzea.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1998'ko UZTAILLA'ren 20'an

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, **ZER** aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

MAITASUNA

Munduak ezagutu dana itzik ederrena da maitasuna ta maitasunaren bidez egin dira lurrean gizadiak ezagutu dituan egitekorik arrigarrienak. Jaungoikoak bere semea emon eutson munduari, gizadiak aren bidez bizia lortu egian. Gizadia egoan bere betiko zorionaren galzorian ta negargarriena zan aita batentzat seme—alaben egoera ain larria.

Era askotako okerkeriak egozan lurrean. Nauskeria, gogor, zabaldu zan gizartean, norbera balitz lez biziaren sortzaillea ta jabe zigurra. Arrokeria itsua danez bereak egiten ebillan ondasunekaz jaubetuz, gosea zabalduz ta bizien artean miseria sortuz. Mundutarren zoritxarrak ta bizien negarrak dei egin eban aitaren aurrean, ta biotza errukituz gizadiaren aldeko erabagia artu eban.

Seme bat eukan amai barik ona ta Jaungoiko izatea estaldu ta gizon izatea arturik, estalpe batean agertu zan. Emen benetan, Aitaren aldetik ta Semearen aldetik biotz aundi bi agiri dira. Biak ekien aurrezaz, zer jazo bear eban, burle, irain, samintasun garratzenak sortuko zirela bizitzan ta guztia eskeintzen dabe gizadiaren onerako.

Emen agertzen da Aitaren eta Semearen munduaren aldeko Maitasuna. Aitarik onenak ezin ikusi dau bere erriaren ondarena ta gizon irudia, era berean, emonik, gizadi errukarriarengana bialtzen dau Semea. Jokabide bi ikusten ditugu emen. Aitaren guraganako errukia ezilkorra da ta jakiñik Semea gizonak ilko dabela, mundura bialtzen dau eriotza orren bidez gizadi maitagarria gaizkatzera. Semea maite dau ezin esan beste, baiña bere semerik onena gizonak iltea ez dau ukatzen gizadiaren salbamen aundirako. Munduaren alde emon bear eban bizia, aita ez eutson semeari parkatzen. Au da maitasun eredugarria!!.

Egiz, gizonezko jantzita datorren seme Josuk mundua anitu bear dau bere irakatsi ta maitasunagaz. Lurrak ezagutu ditun argitasun ongarrrienak zabalduko ditu lenengo ta gero, on egite guzti origaitik, Jaungoikoaren seme egiten dau bere burua ta il—garri da esan eben judeatarrak.

Aitagaz batera biziaren jaubea zan, "kurutzera ori Kurutzera ori" deadarrez ots egin eben. Ta Jesus ixildu zan. Danen jaubea izanik, Aitaren esana egiten irakatsi eban ta biotzean eukan maitasun guztia gizadiari

eskeini eutson. Dana joan zan iskanbilla ikaragarrian. Erriaren aldetik gorrotoa ta Jesusen aldetik maitasuna.

"Aita, parkatu egiezu, ez dakie zer egiten daben". Odol guztia ixuri eban munduaren ta iltzailleen alde.

Zan guztia eskeini eutson Aitari ta borondate oneko guztiak gaur arte ezagutzen dabe Jesusen maitasun arrigarria.



BIZIAREN JAUBEA

Goratu daigun Jesus
biziaren jaubea
Golgota mendian;
irainka jabilkoz
gorrotoz mozkortuta
itxura lardan.

Luna dardaratu zan
eguna gau biurtu
eriotz larriaz;
lurrak autortu eban
Jesus Jainkoa zala
argia galduaz.

PAULIN

BERMEO'KO IDAZLEAK GAUR

OARRA: Ona euren 1984 urtean, Bermeo-4 aldizkarian argitaratu neban lan bat. Bermeo'tarrak jaiak ospatzen dabezan irail onetan beioa nire omen txiki au Bermeo'ko lankide guztientzat.
(Idazleak, Mungia'tik 1998-08-22'an).

LAN ARRISKUTSUA

BERMEO 3 gure aldizkariaren zenbakian argitaratu neban EUSKAL-IDAZLEAK ETA BERMEO lanaren bigarren zatia izan gura dau gaurko onek.

Lan aretan Bermeo'gaz zer-ikusia dauken amabi idazle aitatu nebazan, bost Bermeo'n jaiok, lau Bermeo'n bizi izan diranak (eta onein artean sartu bei irakurleak Almi-ke'ko Abade izan zan Albizuri jauna) eta iru Bermeo aita-tzen dabenak.

Gaurko idaz-lan onetan bide laban batera sartu gura dot, gaurko idazleen mundura edo Idazle-Sailean gaur Bermeo'n daukagun mundura. Bide labana dala esan dot, eta ondo esana: Nok jakin nor dan idazle eta nor ez? Eta nok izan ziurtasunik idazle diran guztiak aitatu dirala eta ez dala iñor izten alboratuta, minduta, asarretuta? Ez ete da esango arako esakera euskeratu a «emen ez dagoz diran guztiak eta emen dagozan guztiak ez dira»?

Dana dala, aspaldiko urteetan sarritan izan dogu bide labanetatik ibillibearra, baita labankadak eta laprastadak egin-bearra be, eta arrisku barri onetara be sartu egingo gara, ez baiña lenengo gogo ona eta iñor ez iraintzeko eta iñor ez baztertzeko gurari bizia agertu barik.

Eta beste urtenbide bat dauko arazo larri onek: Emen agertzen diran eritxiakaz edo izenakaz batera ez datorren edonork, eskubide osoa dauka urrengo zenbakian bere eritxia agertzeko.

LENAGOKOAK GAUR

Emen agertuko dogun idazleen zerrendan, ba-dira idazle batzuk gaurko giro au sortu baiño lenagotik idazle diranak. Oneitariko batzuk gaurko giroan sartu dira, beste batzuk bear ba'da lengoan jarraitu dabe, naizta orain urte batzuk dirala, 1.968 urte inguruko ekaitz aundi arek idazle-munduan guztiai zelako edo alako eragiña ta ikutua egin.

Orreik be gaurko giroan sartu eta bear ba'da bakoitxa aitatzan danean zerbait esan al izango dogu.

GAURKO GIROA

Ezaguna da gure Elertiaren kondairan 1.968'ko Arantza-zu'n izan zan batzar arek izan eban eragiña eta izkuntzari

emon eutson zartada larria, batua sortzeko bideak agertu eta atxea sartzeko atea idegi zanean.

Jakiña, baita, giro orren barruan izkuntza ta idazke-ra-arazoakaz batera nastatu ziran politika, erlejiño, gizar-te-arazo ta olako giza-iztiko edo antropoloji-arloko gorabeerak, baiña gure kondairan ain garrantzi aundikoa izan zan jazokizun gogoangarri au ez dogu emen aztertuko, gitxiago oraindiño Lekuona'tar Manuel Euskaltzain-Buru izatetik kentzeko izan ziran arazoak eta amargarren urteko batzarra egin zanean, 1.978'an Bergara'n izan zan giroa ta EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA sortzea.

Jazokizun orreik kondairako jakingarri lez artu eta gure Bermeo onetan izan ebezan ondorenak begiratuko doguz, bizitasun larregirik barik eta idazleen gaurko giroa azaltzeko bide lez artuta.

Eta ondorenik nabarmenena, Bermeo'n eta Euskalerrri osoan auxe izan zan: Idazleen artean alkartu-eziñeko jokabide bi sortu zirala: ERRI-BIDE ta BATU BERRI. Jokabide bi oneik ez dira beti zeatz-zeatzak izaten, noizbeinka eta idazle edo talde batzun artean jokabide orreik nastau egiten dira, naiz sinkroniaz naiz diakroniaz. Ara zer esan nai dodan: Idazle batzuk erribidetik batu-berrira maillaka ta urterik urtera aldatu dira, eta orrelan jokabide bietakoak dira, esaterako Imanol Berriatua bera, beste batzuk ostera gaur erriko euskeraz eta biar batuaz idazten dabe, esaterako arazo onetzaz ain arduratua izan zan Mike] Zarate Leza-marra.

BERMEO'N

Gaurko giro larri onek Bermeo'n ikutu bizi-bizia izan eban eta oraindiño be ondorenak dauz eta izango be bai, ez dakigu noiz-arte, baiña gitxienez gure bizitza guztirako baietz uste dogu.

Bermeo'n Erribide jokabidearen burn, orduan Mañu'n abade izan zan Garitaonandia'tar Gotzon izan zan. Zalantza aundietako bizitza izan zan, ziur-ziur Gotzon gure adiskide aundiaren bizitza, baiña bidea argi ikustea lortu eban eta erribidearen zuzendari lez agertzen zan giro lam aretan. Ori baiezatzeko bere lanetara, liburuetara naiz aldizkarietara, begiratzea naikoa dala uste dot. Arlo orretan izan eban burru-kaldi bizia, Anaitasuna Aldizkariaren aldakuntza egin zanean gertatu jakon eta Bermeo'n, erri-maillan be izan ebazan alkar-izketa bide dala batzar eta gorabera asko arazo ori argitzeko, baiña eziña izan zan alkartzeta, nai-ta-naiezkoa bana-tza. Gotzon gaztetan joan jakun zori txarrez.

Batu—Berri'ren bideak be izan eban Bermeo'n bere aurrelari oso ezaguna: Berriatua'tar Imanol, Frantzisko'tarra. Idazle onek, Anaitasuna Aldizkaria bide dala lan aundia egin eban Euskera batuaren alde, batez be beste batzuk idatzitako lanak ber—idazten edo batuz argitaratzeko egokitzen.

Naste ori dala—ta edo beste zio batzukaitik, Bermeo'n euskal—idazleak ugaritu egin dirala esanbearra dago eta ori izan daiteke giro larri orren ondoren on bat.

GAUR

Alde batetik Labayru Ikasturtearen lana. Au erribide'ren girotik doana eta Derio'ko Udako Ikastaroa iturburu dauala Irakasle ta ikasle—talde naikoa aundi batek osotzen dau eta ikasturte osoan egiten dabe lana euskerea lantzen eta elerti edo literatura gaiak argitzen.

Beste alde batetik Garitaonandia'tar Gotzon Euskaltegia. Au Batu—Berri'ren bidetik doa eta elburua euskerea lantzea dau, beste irakasle ta ikasle—talde bat orretara sartzen dala.

Ikastegi bi oneitatik eta Bilbo'ko Izkuntza—Eskolan naiz Derio'ko Udako Ikastaroan diarduen ikasleen artean idazle barrien sortzea ikustea gauza atsegingarria da gure erri onetan. Eta danaren oiñarran diranak eta ukatu—eziñak dira Eleizalde Ikastolan, lekaide—lekaimeen ikastetxeetan, Frantzisko Deuna erri—ikastegian, Lanbide—Ikastegian eta Erdi—Maillako Ikastetxean orretarako egiten diran alegiñak, Erriko Udal—Batza bultzagille dala.

Itxaropentsuak izateko ezaugarri batzuk agiri dira ba or. Naizta gaztetxuak eta gazteak erderaz berba egiten entzutea mingarria izan, umeen artean entzuten da euskerea be.

Idazleen sortzaile lez eragin aundikoak diran beste gauza bi be aitatu bear doguz arlo onetan: Bermeo'ko Batzokiak Udal—Batzaren babespean eratan dauan Elerti—Sariketea eta Udal—Batzaren Jakintzarako Batzordeak argitaratzen dauan Bermeo Aldizkari au, oraingoan 4n zenbakia, eta elebitasunaz argitaratzen dan jaietarako egitaraua, idaz—lan gogoangarriak barru dirala.

IDAZLEAK

Emen aitatzen doguzan idazleak, gaur bizi diranak dira, baiña gaurko giroaren iturburu izan diran Garitaonandia'tar Gotzon eta Berriatua'tar Imanol sartzen doguz, naizta biak bizitza barrira joanak izan. Len esan dogun lez, aiztuta geratu diran idazleak, zalantza barik bat baiño geiago izango dira. Urrengoan agertuko doguz.

GARITAONANDIA'TAR GOTZON

Mañu'ko abade urduria genduan Gotzon, bere azken—urteetako arazo larri ta sakon guztietan sartua, bai erri—giroan, baita eleiz—giroan naiz gizarte-arazoetan. Aba-

detzagaz batera lantegiko lana egiten eban Bermeo'n eta bidebatez euskerea zabaltzen alegindu.

Bere euskerea, liburuetan naiz aldizkarietan, garbia ta zeatza zan, bizkaiera gozoa ta errikoia.

Anaitasuna Aldizkaria, 1.968'ko ekaitza sortu baiño lenago erri—euskeraz idazten zanean, laguntzaille zintzoa izan zan Gotzon eta eztabaidak agertu ziranean, Agur aldizkari barria sortu eban lankide batzukaz eta bera ezarri eben Zuzendari.

Zori txarrez gazte—gaztetan joan jakun Gotzon eta bere jokabidea sendotuta ikusteko erarik ez eban izan.

BERRIATUA'TAR IMANOL

Elantxobe'n jaiotako Frantziskotar lekaide onen euskera—arloko lana naikoa sakona ta zabala da, batez be Anaitasuna Aldizkariaren inguruan eta aldizkari onen aldi bietan egin ebana.

Ezaguna zan 1.968 urtea baiño lenagotik idazle onen erdel itzak erabilteko zaletasuna. Anaitasuna'n erabilten ebazan itz batzuk arrituta izten ginduezan, esaterako apaiza, apezta edo abadea itzak erabilli—bearrean, « sazerdotea » aukeratzen ebanean.

Baiña urte orretan Batu—Berri'ren jokabidea agertu zanean, Imanol oso-osoan makurtu zan bide orretara.

Euskera barri orrek errirn ez ebala an-era onik izan konaturatu zala uste dot eta, orregaitik bear ba'da, bere lankideakaz Israel'era osterata bat egin eban ebetarren izkuntza errira sartzeko zelako bideak artu ebezan ikusteko eta andik biurtu zanean oiñarriko euskerearen aide jokatzen asi zan. Isillean naiz agirian, lan aundia egin eban batua errira sartzeko, batez be Anaitasuna aldizkariko «ber—idazle» lanean.

URKIDI'TAR JULEN

Antxiñako idazlea ta ezaguna dogu Bermeo'n gure Urkidi, batez be Jaietarako Egitarauan agertu dauzan lanak bide dirala.

Urkidi gaurko giro au baiño lenagoko idazlea dogu ba eta berak antxiñatik artutako bide orretan ez da ezelako aldakuntzarik agertu gaurko giro larri onen eragiilagaitik.

Baiña zein da Urkidi'tar Julen'en idaz—bidea? Bermeo'ko euskerea, bere aboskeri ta guzti, eta idazkerako arauai jaramon aundirik egin barik. Orregaitik bere idaz—lanak arrigarrigertzen jakuz gaur sail batzutan.

AZPEITIA'TAR GOTZON

Ona euren beste antziñako idazle bermeotar bat. Bere idaz—lanak AGUR eta ZER aldizkarietan sarritan agertu dira, bai itz lauz eta bai itz neurtuz.

Onok be Bermeo'ko euskerea erabilli dau beti, larregi

ELERTIA

zeaztu bank bear ba'da, baiña jatortasun eta berezitasun aundiaz.

Gure Gotzon urteetan be aurrera joan jaku, baiña idaztea itzi ba'dau ez da izan orregaitik, beste zio bategaitik baino: Gitxi ikusten daualako, bere ikusmena urritu egin jakolako.

Mikel bere seme abadearen izena be agertu bear emen. Onek be idazten dau euskeraz, eta ondo idatzi be, baiña ugaritasun aundi barik, bere eleiz—lanetan oso—osoan sartuta dabilrelako bear bada. Beronen euskerea Bizkai'ko euskera apaindua, Labayru'ren giroan eta atxe ta guztikoa dogu.

ETXEBARRIA'TAR ISIDOR

Euskalzale sutsua ta mundu zabalean asko ibillia dogu Isidor eta AGUR aldizkarian idaz—lan batzuk argitaratu ebazan, baiña ez da izan idazle ugaria eta gainera aspaldi-ko urteetan isildu egin jaku.

Idazterako deia egiten dautsogu lan onen bidez. Euskera idaztea Euskalerra egitea da.

ANASAGASTI PEDRO

Frantziskotarra ta Bermeo'tarra, aita Pedro. Erderaz be lan luzeak eta zabalak idatzi dauz, azkenengo Bermeo Uriaren kondaira—liburua. Izparlari lez lan aundia egin dau eta beti bizi izan da geiago egiteko gogoaz. Elburu orregaz joan da zartzaroan Beni'ra, Frantzisko'tarrak Ego—Ameriketan daben mixioaldera eta an diardu lanean. Arantzazu Aldizkaria zuzentzen eban emen izan zan aldian.

Baiña euskerazko bere lanik gogoangarriena OLATUAK liburua da. 1.980'an eta itz neurtuz egiña da liburu ori. 79 olerki dira. Aita Santi Onaindia'k egiten dautso sarrerea, gipuzkoeraz, ez dakit zegaitik euskalki onetan

Aita Anasagasti'k berak bertso batzuk bizkaieraz daukaz eta beste batzuk, geienak uste dot, gipuzkoeraz, bear ba'da bera be luzaragoan Gipuzkoan bizi izan dalako. Baiña beti euskera garbi, jator eta ederra, bizkaieraz naiz gipuzkoeraz. Olerki oneik irakurgarriak dira benetan. Ber—idazleen eskurik ez al da izango or.

RENTERIA'TAR JOSE ANTON

Idaz—lan labor asko idatzi dauala uste dogu idazle onek, aldizkarietan batez be, eta arazo ori egunen baten zeaztu al izango dogu; oraingoan 1.982'ko jaietarako Egitarauan agertu eban Bermeo'ko Euskerie idaz—lana daukagu aurrean.

Euskera aldetik, Bizkaiera apaindura joten dau Renteria'k, baiña noizean bein Bermeo'ko aboskerak sartzen dauz bildur barik, idazpuruan bertan agiri dan «euskerie» berban ikusi daiken lez edo gerotxoago «gure erriyen».

Berak Bermeo'n berba egiten dan moduan idatziko dauala diño, baiña ori zeatz betetea ez da erreza izaten.

GOIENETXE LAMENETARRA

Ona euren Bermeo'n aiztuta daukagun eta Bermeo'tarra dan beste idazle bat.

Onek liburu bat dauka idatzita, baiña irarkolan argitaratu barik. Liburua da, orregaitiño, eskuz idatzia izan arren, azal ederrakaz jantzita eta ondo josita datorrelako.

Jose Done Ikastetxean ikasle izan zan idazle au eta 1.956 urte inguruan idatzi eban olerki liburu ori. Aita Santi Onaindiaren eskuan itxi dogu azterpen egokia egin dagion eta laster agertuko dala aldizkariaren baten azterpen ori uste dogu. Olerkiak idazkera aldetik ez dira geiegi zeaztuak, baiña gitxi idazten zan aldi aretakoak izanik, gogoangarriak dirala uste dogu. Ba—ditu nastean erderazko idaz—lan batzuk be eta Liburua Ibarra'tar Jabier'ri eskiña da. Bermeo'ko liburutegian dago.

ZULUETA'TAR EUTIKI

Abade Bermeo'tarra eta Bermeo'n lanean diarduana, idazle argi, garbi ta sakona berak idatzitako esku—idazkietatik dakigun lez. Eutiki abade jaunak asko ta ondo landu dau euskerea, baiña idatzi, irarkolaren bidez beintzat oso gitxi. Zergaitik ete da?

Idazle oneri be dei egiten dautsogu idaz—lan onen bidez, bere jakituria eta bere euskera garbia beretzat gorde ez dagizan. «Daukonak ez daukonari» iñoan antxiñako esakera zarrak.

Eta onen antzera esan bear Gandiaga'tar Jose abade jaunari begira be. D. Jose'k ondo idazten dau euskeraz eta bere idazlanak agertu be egin ziran abade—ikasle zala orduko etxe—aldizkarietan. Baiña gero ugartu egin jako idazkortza antza, ez da bere idazlanak aspaldion iñon agertzen—eta.

IZARO LEKAIMEA

Idaz—lan onak argitaratu dauz IZARO izenpetzen dauan eta entzun dogunez Bermeo'ko alabea dan lekaime batek, bizkaiera garbi eta ederrez.

Pozik argitaratu genduzan lan orreik eta lekaime orreiri eskari au egingo geunskio euskerearen onerako eta Bermeo'tarrak alkarren barria egokiro jatiteko: Bere ize-na agertuta eta zabal—zabal idatzi dagiala gure aldizkarietan orrelan erriaren eta euskerearen onerako izan daiten. Erriari laguntzen dautsonak, orrexek dau erria maite, eta erria maite dauanak errien Sortzaille dan Jaun Aundia maite dau. Orra or lekaimeen zeregiña! Apaltasuna egibidetik ibiltea dala esan eban beste lekaime ospetsu batek.

BILBAO'TAR GIDOR

Baiña sartu gaitezán, gaurko giroan osoan sartuta dagozan idazleak aitatzerá.

Gizaldi barri Bermeo'tarraren barruko idazle dogu Gidor mutil gaztea, Gasteiz'ko Ikastetxe Nagusian izkuntza klasikuen ikasle dana.

Bermeo'ko Batzokiak Udal—Batzaren Babespean antolatú dauan sariketan, eta bein baiño geiagotan, agertu dau bere idazle—trebetasuna. Bermeo—3 aldizkarian 460. orrialdean agertzen da bere BERMEOTARREK DIÑOIE idazlana: Bizkai'ko euskalkiaz idatzia, —ek ergatiboa edo nork adijabearen askorena erabilten dauala, erritarren esaerak erritarren izkeraz datozela, euskera eder—ederrean.

Bere ikasle—lanak asko arduratzen daualako—edo, gaurkoz ez da idazle ugaria, baiña gure izkuntzak eta gure erriak izan daíkee itxaropena gazte onen lanetan.

PENADES'TAR JOSU

Ona euren uin barri onen barruan gogotsu datorkun beste gazte bat, edozelako lanak euskeraz idazteko trebetasunaz, baiña batez be umeentzat ipuñak idazten bereiztua. Lauaxeta Ikastola'n izan zan sariketan atera eban saria bere ipuin eder bat bide dala ETA Bilbo'ko EUSKERAZALEAK eratutako ipuin—sariketan be saritua izan zan orain iru urte. BERMEO'KO BATZOKIAN be bai.

Labayru Ikasturtean irakaslea da eta Deustu'ko Ikastetxe Nagusian diardu Teologia edo Jainko—Iztiko ikasketak egiten, aurretiaz irakasletzako ikasketak amaitu ondoren.

Bere arazo oneik lanpetuta bizi dalako bear bada, ez dau idaz—lan askorik argitaratzen baiña zugatz onak frutu onak emongo dauz, zalantza barik.

ERKOREKA'TAR JOSU IÑAKI

Bete ikasketak Deustu'ko Ikastetxean Lege—Gizonaren eta ekonomilariaren ikasi—bearretan amaitu eta bere soldadutza Afrika'ko lurralde beroetan bete ondoren, emen daukagu gure Josu Iñaki idazlea lanerako gertu.

Lan sakonak, luzeak eta ondo eratuak argitaratzen dauskuz idazle onek, batez be Bermeo Aldizkarian: Bermeo'ko Santutegitxuen zerrenda, 2. zenbakiaren 351. orrialdean asita eta urrengoa izango dan 4n. zenbakirako be ba—dago beste lan luze eta eder bat gertu. Bermeo—1 aldizkarian ARRANTZALEEN BIZITZA ONTZI BARRUAN idazpuruaz idatzi eban.

Bizkai'ko euskerea egokiro, garbi ta eder darabil Josu Iñaki'k eta bere astialdietan ekingo dautsola lan oneri uste dogu: Ba—dauka zer—esanik asko eta ba—daki zelan esan be. Erriak eskertuko dautso bere lana.

ERKOREKA'TAR ANTON

Osagille gaztea eta euskal—arazo guztietan oso arduratua dogu Anton Erkoreka. Bermeo Aldizkaria argitaratze-ko lan aundia egin dau, naizta bere lanak « Idazkontseillutik» urtetera beartu, berak esan dauskunez.

Maisu—Lan aundi irakurgarria egin dau Salamanca'ko, Ikastetxe Nagusian, Bermeo'ko erri—osagilletza gai dala, erderaz, 1.983 urtean.

Bermeo—1 aldizkarian bibliografi sailleko Ian luzea argitaratu dau 1.980 ARTE BEREMEORI BURUZ 1DATZITAKO LANAK idazpuru dala. Sarrera labur bat dauka euskeraz eta euskera batuaz idatzia. Zenbaki beratan erderaz beste lan bat. Bermeo'2 aldizkarian erderazko lan bat eta komunikapen bat. Eupeme deunako kalbarioa euskeraz.

Sail guztietan eta euskal arazo guztietan oso arduratua ta langillea izan arren, ikusten danez, ez dau asko idatzi euskeraz. Ba—daukagu orretara sartuko dalako itxaropena.

ZUBIZARRETA'TAR ANTONIO

Frantzisko Deuna Bermeo'ko txadonean txanburu dogu aita Antonio. Bere euskerazko lanak Bermeo'ko sariketara arukeztuak eta sarituak izan dira. Azkenengoa argitaratu da «Juan Otsoren tripalak» idazpuruaz Bermeo—3 aldizkarian. Euskera errikoia ta ulerterreza da Aita Antonio'rena eta, gaiñera, irudimen aundiko idazlea da eta, toki guztietan, batez be euskaldunen artean eskertzekoa izaten da irudimen aundiko idaz—lana aurkitzea. Larkeri edo ipirbole utsa dala esan geinke bere lan barreeragille eta eder au.

Oso ondo idazten dau Aita Antonio'k eta bere lan aundiak astia izten dautsoen neurrian idazteko eskaria egingo geunskio, naizta gure aolkuen bear—izan aundirik euki ez berak. Erri—zaletasuna agertzeko biderik egokienetariko bat da, zalantza barik, euskeraz idaztea.

GAZTELU'TAR AMAIA

AGUR aldizkariaren orrialdeetan argitaratu ebazan lan batzuk Gaztelutar Amaia'k, baiña aspaldian ez dogu irakurten bere idaz—lanik. LankideAurrezk ikutxa'ko lan—orduak eta errigintzako beste eskuarteko arazoak aske izten dautsoezan orduak Labayru Ikasturtean irakasteko erabilten dauz.

Egille lez eta eragille lez lan aundia burutzen dau Amaiak Bermeo'ko euskerearen aide.

LEGASA'TAR MARK

«Bermeo'ko Jaiak 1.982» egitarauan irakurri dogu BERMIO, EUSKERAREN INDAR PLAZA idazpuruaz Mark Legasa'k izenpetua dan idaz—lana, euskera batuan idatzia eta ondo taiutua. Idazle onen beste idazlanen barri-rik ez daukagu.

ELERTIA

PEREZ ETA BILBAO'TAR ANTON

Orra or, irakurle, beste Bermeo'tar arduratu bat, Bermeo Uriari dagokiozan arazo ta urtenbide guztietan sartu ta gogotsu ekiten dauana. Kepa Deuna Anaidiko Idazkaria da.

Bermeo-1 aldizkarian 123. orrialdean asita Señeroak gai dala lan jakingarri bat agertu eban, BERMEO-2 aldizkarian Malgodain eta Abanporte kaien arazoa aztertzen dau 427. orrialdean asita eta San Juan oinai buruz komunikapen bat 443. orrialdean. BERMEO-3 aldizkarian Itzulpen bat Bermeo'ko emakumeen posizioa argitzeko, Charlotte Crawford'en lana oiñarri dala. An-eta aundiaz gertatzen dauz bere idaz-lanak eta Bermeo Aldizkarian idazkolarako izanik gogotsu esku-artzen dau batzarretan.

Anton Perez'en euskerea irakurgarria da, baiña ez da erreza zein eskolatan sartu daiken jakitea, bear bada baten be ez da sartu bearko. Batzutan Bermeo'ko aditz-jokoak aurkituko dozuz, beste batzutan aditz batukoak eta iñoz bizkaierazko esaldi garbiak. Baiña euskerea, irakurgarria. imanól Berriatua'ren lenengo denporetako idazkien antza ete daukon, batez be idazkeran.

ANASAGASTI'TAR ANDONI

Eupeme Deunaren eleizan billaketa-lan batzuk egiteko etorrira, ezagutu dogu Andoni Irakaslea, gizon gaztea. Gero Kurtzio'ko eleizatxuan lurpeko billaketak egitean orizan da, Anton Erkoreka'gaz batera eta ikastetxe Nagusiko Irakasleak artu-emonetan.

Ez genkian idazlea zanik be, baiña Bermeo Aldizkariaren aurkibidea irakurrita here izena baten baiño geiagotan agertzen da eta euskerazko lanak idazten: BERMEO-lean ARRANTZA-OITURAK ETA ARRANTZAREN BIOLOGIAZ BERE ZER-İKUSIA.235. orrialdean, eta argitaratzeko gertu dagoan beste idaz-lan bat urrengo zenbakirako Kurtzio'ko eleizan egindako billaketari buruz. Euskera batuan idazten dau.

ASTUI'TAR ALBERTO

Idaz-zatien azterketa-lana ez da geien gure idazleen artean egiten dana.

Arlo onetan bakar lez jaku gure Alberto Astui (Bermeo-3,405 orrialdea) TORRONTERUEN da idaz-lanaren idaz-purua eta Ortuzar'en «Oroigarriak» liburuko lenengo antzerkia aztertzen dau, gaia, ideolojia, egiturak, teknikak (emen espazioa, denporea, pertsonajeak) estiloa (ritmoa, iztegia) eta izkerea gai lez artuta. Lana laburra da baiña igarten da idazleak elerti-lanen azterpena egiteko bide batzuk ezagutzen dauzala eta trebebideak erabilten ba-dakiala.

Azterpen-arloan bide luzea dagoala egiteko uste dogu

gure elertiaren barruan, eta asko poztuko gintzake mutil gazte au bide orretatik oian sakonaren barrura sartuko ba'litz

Bizkaieraz idatzita dago eta euskerea naikoa jatorra da.

BILBAO'TAR BEGOÑA

Bermeo-3 aldizkarian agertzen diran lan sarituen artean BEGOÑA BILBAO ALBONIGA'ren ATZERRIRATU BATEN ITZULIA lana agertzen da, 454. orrialdean.

Bizkaieraz idatzia da. Lana ondo taiutua eta erakunde egokiaz oiñarritua.

Begoña Bilbao'k Garitaonandia'tar Gotzon Euskaltegian egiten dau lan euskera irakasten.

Ba-leiteke beste idaz-lanen batzuk be idatzi izatea, gure eskuetara elduak izan ez an-en.

EGAÑA'TAR AINTZANE

Idazle asi-barria ta gaztea dogu Aintzane, Irakasletzarako ikasketak Donostia'n amaitu dauzanean Bermeo'ko aditzari buruz billaketa lan txalogarri bat egin dau eta urrengo BERMEO Liburuan argitaratuko da.

Billaketa au egiteko Bizkaierazko aditz-jokoak artu dauz oiñarri lez eta Bermeo'n zelan esaten diran billatu. Bermeo'ko aditza oso bereizia da eta orregaitik Ian ori be gutziz irakurgarria da arlo onetan sakondu gura dauanarentzat.

Bizkaieraz, garbi, polito eta zeatz idazten dau Aintzane'k.

IDAZLE ASKO: ITXAROPENA

Eldu gara gure idaz-lantxu onen azkenera. Irakurleak ikusi daiken lez idazle asko dagoz gaur Bermeo'n, eta geienak gazteak. Ortik datorku etorkizunerako itxaropena.

Eta lan oneri begira, ez nauala beteten esan bear. Obeto idazle bakoitxaren jakingarriak zeatz batu ba-nebazan, baiña orretarako asti geiago bearko zan. Idazleak ba-dagozela eta itxaropena euki bear dala erriari adierazo ba-dautsot zerbait egin dodala uste dot. Orrez gaiñera, oraindiño idazle ugariak ez diran gazte onei idazterako bultzakada bat emon ba'dautset, askoz obeto.

Dana dala, urrengo urteetako lana izan daiteke idazle oneitariko bakoitxaren zerteldak agertzea ta azterpen zeatza egitea. Zori txarrez gure Bermeo Aldizkari au urtean bein baiño agertzen ez dan lez, ez dau olako lanetarako askorik emoten.

Eta amaitzeko, Bermeo gure aldizkari au goratu-bearean aurkitzen naz. Sarritan uste izaten dogu egiten dogun lana labur geratzen dala, baiña beste elburu txalogarri batzun artean idazle barri batzuk sortzea lortzen ba'dau, lan txalogarria benetan ori eta gure euskerearen benetako sal-babidea.

Egia da. Ez da aldizkaria bakarrik lan ori egiten dauana. Or dira baita, irakasle askoren alegiñak, or leiaketearen elburua, or euskaltegien lana eta abar baiña Bermeo Aldizkariak zalantza barik bere aletxua erein dau uzta ugari ori sortzeko.

Olazar'tar Martin'ek

**EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN
EUSKAL-ASTEIA 1998**
(Bilbao'ko Udalaren babespean eta laguntzaz)

Urte guztietan lez aurte be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Euskal-Asteia ospatuko dau.

Zemendiaren 30'etik abenduaren 4'ra izango da, Eskolapiotarren Ikastetxean Alda. de Rekalde kalean, 19. atean, arratsaldeko 8'retan:

Oneik izango dira izlariak eta gaiak:

30.- Astelena: Zubiri'tar Iñaki: Arrese Beitia'ren olerkaritza.

1.- Martitzena: Zubikarai'tar Augustin:

2.- Eguastena: Latxaga (J.M. San Sebastian): Dabbadie euskalzale ta idazlea.

3.- Eguena: Murua'tar Jose Maria:

4.- Barikua: Olazar'tar Martin: Euskerea len, orain eta gero

Itzaldi gurtiak izango dabe aurkezpena, alkar-izketa ta bertsoak. Oneik Paulin Solozabal bertsoagile dala.

Beioake euskalzale guztiai gure deia.

**IPUIN-SARIKETA
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)**

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oñiarri-arauak oneik dirala:

—Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe.

Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER' en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

—Sariak lau izango dira: 1.^a 50.000 pezeta.

2.^a 40.000 pezeta.

3.^a 30.000 pezeta.

4.^a 20.000 pezeta.

—Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: Ipuñak ekarteko epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

IKASTOLEA ETA ESKOLA PUBLIKO EUSKALDUNA, BIAK BE BIAK ERAIKUNTZA NAZIONALERAKO BEARREZKOAK

Ez da egia Eskola Publiko Euskaldunaren aide egoteko Ikastolen aurka egon bear dana. Badira, bagara, Euskalerrian asko be asko arlo biak begi onez ikusi, onartu eta bultzatuten doguzanak. Ez da egia, Ikastolak "ghetto pribatuak" dirana. Egia da pribatuak dirana. Baina egia da, baita be, Ikastolak Erri Ekimenak sortuak eta sustatuak dirana. Erri Ekimenak UEU, AEK, Euskaldunon Egunkaria, Euskal Herrian Euskaraz, Topagune, irrati euskaldunak eta kooperatibak diran lako erakunde pribatuak be sortuak diran lez. Ikastolak Erriak sortuak eta sustatuak dira. Euskalerrri osoan onarpen sozial zabal eta sakona dauke eta urteroko ibilbidean euren aide batuten diran ia 500.000 euskalzalaren baietzak argi be argi izten dau ori.

Ikastolak auzolanaren kulturaren jaiok dira. Ikastolak partaidetza sozialean oinarrituta dagoz. Ikastolak gurasoen kooperatibak izankeran, gurasoak seme-alaben eziketaren artean guztiz inplikaturik dagoz. Ikastolen eredu berezko eta autogestionarioa da. Gestinoan eta proiektu pedagogikoan administrazioarengandik autonomoak dira. Ikastolak dira euskal gizarteak ezkuntza arloan emondako ekarpenik berezkoenak. Eredu beratu deuskue Britainiako eta Okzitaniako Ikastolek, au da, DIWAN eta CALANDRETTA diranek, urrenez urren. "Ikastolak, betidanik, ardatz nagusia izan dira erri onetan, erri mogimendu andia mobilizatuten dabelako, eta gaur egun, erri onetan sortu jakun auzolanik andienetarikoa da Ikastolen mogimendua. Onek adierazoten dau bizirik dagoan Erri baten gagozala". (Karmele Aiestaran, HBko euskera arduraduna, EGIN, 98.06.08, 15. off.)

Agiriko dan lez, ainbat arlotan Ikastolak aurrelari dira gure errian. Euskerea eta euskeraz ikasteko bearrizantetik arago doaz oraindik. Euskal gizarteagazko konpromiso sendoa artu dabe, euskal gizarte bera izkuntzaz eta senez euskaldundutekoa. Aor bada, publikatutako Ikastolakaz sortutako alkarlana eta konfederakundea. Aor, ELA eta LAB sindikatuakaz ezkuntza arloan aurrelari dan aurton izenpetutako lan baldintzen itzarmen istorikoa. Aor, Ikastolek Euskaldunon Egunkaria, AEK, Topagune eta EHEgaz oraintsu izenpetutako "Euskararen Ordua" deritxon adierazpen eta agiri publikoa. Aor bada be, "Euskararen Unibertsoa" deritxonaren zuzendaritzan Ikastolen eskuarte arteza. Aor, Elhuyar, Zabaltzen, Labayru, UEU, Eusko Ikaskuntza... eta olango erakunde pribatuakaz Ikastolek egindako itzarmen eta alkarlanak. Aor, eraturako Jardunaldi Pedagogikoak.

Beste aide batetik UGTek sortu, zabaldu eta gizaritearen talde batzuk Ikastolei deuseen beinolako "gorroto istoriko" dalako orrek bizirik dirau oraindik, aurki (irakurri "El Libro Negro del Euskera" – JM Torrealde). Negarria da ori. Negarriagoa da, oraindik, 10 edo 13 urteko neska-mutilak gorroto istoriko orrek naastuta egoten ikustea.

Ikastolek eta Eskola Publiko Euskaldunak alkarlanean eta alkarriketan oinarritu bear dabez euren arteko artue-monak. Lankidetzaren esparruak zabaldu bear dabez, konpetentzia alkar-neutralizatzaile sortu barik. Alkar osogartasuna sortu bear dabe. Ezkuntzearen euskalduntzerako estrategia egokia eta itundua sortu be, alkar urreratze sendoa eta iraunkorra lortu aal izateko. Au bearrizantzia da Euskalerrriko eraikuntza nazionalerako. "Erri eta Nazio bat izan gaitez, gure Irakaskuntza Sistema Berezkoa bear dogu. Bertan eta bertorako, gure leena kontutan artuta, etorkizunari begira eraikitakoa. Ikastolen Mogimendu Nazionala eta euskeraz diarduan Eskola Publikoa doguz biarko Euskal Eskola Nazionalaren oinarriak eta zutabeak" (Tasio Erkizia, Euskaldunon Egunkaria, 98.05.31, 3. orr.)

Estrategia okerrik ez jako Eskola Publikoari komeni. Borroka frentistek Eskola Publiko Euskalduna lurperatuko dau-eta. Borroka frentista eta gorroto istorikoa kalte-kaltekarako dira Eskola Publiko Euskaldunarentzako. Borondateak erakarri baino, uxatu egiten dabezalako. Eskola Publikoak beste irudi bat bear dau emon. Estrategia sustarretik aldatu bear da. Beste kultura bat bearrizantzia da orain: alkarlana eta alkarriketia. Eskola Publiko Euskaldunak bizirik irautea gura izan ezkeron, beste solaskide batzuk bear dira. Solaskide baliagarriak eta positibistak alkarlanaren kulturaren sinistuten dabenak, atan be. Osterantz, Eskola Publikoak bere burua galduko dau. Autosuntsiketia saiestu bear da.

Amaituteko, gorroto istorikoaren erakuslerik esanguratsuenetarikoen zerrendan, beste batzuen artean, urrengo oneexek legokez: UGT, UA, Guardia Civil, PSOE, ABC, Del Olmo, UPN, RTVE, Ynestrillas, SER, El Correo, PP, ... beti-betikoak.

NO COMMENT!

Iniaki MARTIARTU
1998ko bagilean

KARLISTADA ETA SANTA KRUZ

Lenengo Karlistada emakume bat, gizonezkoen orde, erregiña izendatu zutelako sortu zan. Bergara'n Maroto karlistak eta Espartero liberalak alkarri eman zioten 'besarkada' negargarri batekin amaitu zan.

Isabel bigarrena zan erregiñi ori. 13 urte betetzearekin batera, ezkondu zuten Borbon batekin...

Urteak pasa ziran, eta 1868'an bota zuten errege-aulkitik Iraultzari bidea eman. Saboya'ko Amadeo aukeratu zuten errege berria. Bi urte besterik ez zuen iraun: 1873-Otsaillaren 1 Van aide egin zigun Italia, bere errira.

Ondoren, amaika illebeteko Errepublika. Garai larriak ziran eta Fuero eta Erljioren aurkako lanean ekin zuten guztiak. Eta, orretzek eraman ginuzen berriro beste Karlistada batera.

Don Carlos de Borbón VII'garrenak, bere errege izateko eskubideak aurretik zituela, agintarien aurka jeikitzeo agindua eman zuen, España osoan, 1872'ko Apirillaren 21'erako. Lau urte iraungo zuen eta, batez ere, bere barruko naigabez, il zan 1876'garren urtean.

Bergarako salakeri arrekin oso asarre gelditu ziran benetako euskaldun errimaitaleak. Oien artean bat, Elduayen'go apaizgaia. An zebillen zoratu bearrean, Bergara'ko Salakeria gogora etortzen zitzaion bakoitzeko.

Samoa baserriko semea zan Manuel Ignazio Santa Kruz, 1843'an sortua. 1867'an egin zuten apaiz eta bereala asi zan Goierria'n zear, dirua biltzen eta armak ekartzen Frantzia'tik. Kobeetan, baserrietan, baita soro erdian egiñiko zuloetan ere, gordetzen zitun... Ordurako Hernialde'ko erretoa zan.

Tolosa'ko agintari liberalek susmo txarren bat artuta zeuden ordurako eta ots egin zioten Tolosaka etortzeko; baña, entzungor egin zien. Goiz batean, ara nun agertzen dan Hernialde'n mikelate eta soldadu pillo bat, komandantea buru zutela, apaizaren billa, Meza ematen ari zan bitartean.

Komandanteari eskatu zion, emateko tarte bat, Meza ondorengo otoitzak egiteko... Irten zuten elizatik eta beste eskari bat egin zion militarri: An aurrean zegoen baserri artan artzen zuen egunero bere gosaria, eta baraurik zegoenez, ba uraxe nai, gozaldu.

Baietz, juateko. Gudari taldeak ipiñi zitun etxe—aurretik eta atzetik, ba'da ez ba'da ere. Apaizak, etxean sartu orduko, etxeoandrearri bere gizonaren galtzak eta blusa bat ekartzeko eskatu zion. Aiek jantzi, otarra bat lepoan artu,

eskuan itaia eta atzeko atetik, soldaduen erditik, sororan barrena, Ernio'runtz.

Gosaria luze zijoan eta Komandanteak, susmo txarrak arturik, etxea ipurdiz—gora aldatzeko eskatu zien gudariei. Ganbarako belarretan baionetak sartzen saiatu ziran aldi luze batean... baña, basen-ian ez zegoen apaizik. Ordurako Ernio menditik Bidania'ra jeisten ari zan Santa Kruz, bere lagun erretorearen etxera. Otarra eta itaia lagata, Tolosaka, soñean zituen jantzi aiekin. Tolosa'tik irten zuten bere billa gudari 'beltzak' eta eurok baño lenago zan bera, Santa Kruz, axarien kabian, Tolosa'n.

Manuel Santa Kruz, gizon ausarta eta kirio gabea. Burua, otz.

Santa Kruz'en gerrarako—irteerak

Don Carlos'en agindua betetzeko (1872—IV—21), Santa Kruz kapellau bezela irten zan gerrara, Recondo Jeneralaren mendean... Irteera arek ez zeukan ez buru eta ez isatz; naaste—borraste galanta.

Barkamena eskeintzea naikoa izan zan, guztiak, Jeneralak aurretik, etxera joateko, millaka fusil etsaien eskuetan utzita gero. Amorebieta'ko oraingo itzermana, Bergarako Besarkada baño askoz okerragoa, Don Carlos'en iritzira.. Recondo'ren kapellaua buru—makur Frantzia'ra; baña, Jeneral'en jokaera arrekin oso asan-e.

Illebate pasa orduko, irten du, bakarrik irten ere, emere-tzi mutillen gidari, bere buruko indarrak neurtzera.

Gau aretan mutil bateri tiroa eskapatu eta oñetan eman zion. Ingumari artako berririk iñork jakin ez eta Santa Kruz berberak, artu zuen mutilla bere kontu, tokiren batean izkutatzeo. Artan dabilela, arrapatu dute Aramayona'n eta bertako udal—etxera eraman zuten, urrango goiza argitzen zanean, fusilatzeo. Maiatza zan, urtea 1872. Asi orduko, orra Santa Kruz'en azkena. Ilketan parte artzera, zetorren Gazteiz'tik Primo de Rivera jenerala.

Bein Hernialde'n iges egin ba'zun, gaur ere iges egingo du, naiz—eta Udaletxetik kalera salto egin eta aldameneko errekan bere burua izkutatu bear... Santa kruz'en billa talde guztiak zakurrak axariaren atzetik bezela. Inguru guztieta-ra zabaldu ziran, ez bait zekiten zer norabidera jo. Erreka berbera ere ondotoxo arakatu zuten. Dana alperrik. Ogeita lau ordu billa ibilli ondoren, aide egin zuten guztiak Aramayona'tik; baita Primo de Rivera Jenerala bera ere: ustel gertatu zitzaion etorrera...

EUSKAL EDESTIA

Errekatik irten zuanean, goseak eta otzak aulduta, base-
rri bateko etxejaunak artu zuen, ondo zaindu eta koba
batean gorde... Sendotu zanean, berriro Frantzia'ra.

Irugarren eta aizken irteera

1872'ko Abenduaren lenengo egunean, deia egin zien
beure mutillari, Biriatu'ko illerrian alkar biltzeko. 37 mutil
agertu ziran bertara. Bidasoa ibaia igari pasa eta Aia'ko
Arkaitzetara. Soñekoak aldian legortu, gaueko otzari begi-
ratzeke eta an alkartu ziran mutil geiago: danetara 50.

Poza zabaldu zan Gipuzkoa osoan, Santa Kruz etorri
zalako eta mutillak bildu ziran bere inguruan geroz eta geia-
go. Ez zituen edonola artzen: ardo edo lizunkeriaren men-
deko zirenak, ez zituen nai...

Bergara'tik Mondrago'ra zijoan liberalen konboi bateri,
San Prudenzio inguruan, 47 fusil eta iru kaja munizio arra-
patu eutsezan. Deba'ko elizaren dorrean 50 eta karabine-
roen beste orrenbeste zamarra, otzaren aurka. Mutil berriak
etorri ala, ateratzen zituzten baserri eta kobeetan izkutatu-
tako armak; baita, zuloetakoak ere...

Bost illebete, 37 mutillekin sartu zanetik, eta preso artu
zuten Aramaiona'ra, bertara, azaldu zan, batalloi oso bate-
kin: bost konpañia, eun gizon bakoitzak eta Santa Kruz
aurrean. Karlisten batalloirik ederrena, indartsuena, zuzene-
na... Jendea, illunabarra izan arren, erriko plazara urbil-
du zan, pozez txoraturik, ikaragarritzko festa sortuaz: zora-
mena. Urte bete, maiatzetik maiatzera, Udaletxe aretan
iltzeko preso zegoena, ara euren orain orrelako indar bere-
ziakin, bera danen buru.

Santa Kruz'en Etsaiak:

Liberalak

Ez ziran gutxi. Lenengo ta bat Gipuzkoa'ko liberal agin-
tariak: Tolosa'ko Agirre, diputadu jaunak, 10.000 urrezko
pezta eskeintzen ditu Santa Kruz, bizirik ala illik, ekartzen
duanari.

Bigarren lekua Karlisten, izarrez eta medallaz betetako
Jeneralentzako zan. Millaka gizon euren mendean izan
arren, ez ziran ezertarako mogitzen: toki erosoak aukeratu
eta bertan goxo; ibiltzeko zaldi bat eta lo egiteko, berriz,
oge biguñak. Nekez mogitzen ziran burrukarako, eta beti
gudari moltso aundiekin; Santa Kruz'en asmoa izaten zan,
gizon gutxiekin, berrogeita amar ala eun, jo ta desagertu;
gaur emen eta biar beste urrutiko leku batean... Berak orre-
laxe egiten zuan. Naiz—eta salatariz inguraturik egon, ez
zekiten sekula nundik joko zuan Santa Kruz'ek. Liberalen
soldaduak, mikelleteak, liberalen boluntarioak, guztiak
zebiltzen mendian gora, mendian beera, Santa Kruz'en
arrastorik aurkitu eziñik...

Jeneral Karlistak

Militar Karlisten Jeneral ano auek ezin zuten pakean
jaso Santa Kruz'ek burrukara irtetzean, aurrea artu ziela:
eurak Abenduaren 18'an eta Santa Kruz Abenduaren lenen-
go egunean. Ez eta erriek zioten maitasuna; gutxiago orain-
dik mutillek ziotena eta auen burrukarako griña...

Orregaitik edo, Lizarraga Jeneralak, Gipuzkoa osoko
zuzendariak, agindu au eman zien bere menpekoei: aurki-
tzen dezuten tokian fusilatu Santa Kruz; onek berriz ez zion
sekulan barkatu orain agertuko degun Aia'ko saldukeria.

Santa Kruz Bergara aldeko Komandantea ez zan bertan
goxo geldirik egoten: Aizgorri, Aralar eta Napar euskaldun
mendiak jorratzen zitun etenik gabeko ibilleratan... Aia'ko
mendietan, Zarautz uriaren aurrean, muño bat egokitu zuen
burrukarako gordeleku; zangak iriki zitun inguruan eta
aurreko arboladiak bota errezago zaintzeko.

Liberal agintariei ez zitzaien gogoko muño ura eta inda-
rez artzea erabaki zuten: iru talde aundi bota eutsoezan iru
bide desberdiñetik: Donostia eta Tolosa'ko bideetatik bana;
irugarrena Itziar aldetik. Itsasoa zeukan aurrean eta erasoa
jo zioten ezkerretik (Itziar), eskubitik (Donosti) eta atzetik
(Tolosa)...

Egun aietan Lizarraga Zarautz'en kokatuta zegoen milla
gizonekin eta Santa Kruz'ek eskatu zion ezkerreko (Itziar)
bidea zaintzeko eta berak, beste biak zainduko zituela.

Lizarraga'k erantzun zion, baietz, egoteko lasai, berak
emango ziela aurpegi... Ezkerreko erasoari begiratzeko,
Santa Kruz'ek egin zitun beste biak egokitzen zitzaian eran-
tzuna emateko prestakizunak. Bigaramonean an nun dato-
zen bi talde, nola eskubitik, ala atzetik. Jarri zitun mutillak
ara begira; Lizarraga'k egingo zuen bere lana Itziar aldetik
zetoztenekin... Ustea uztela gertatu zitzaion: Lizarraga'k
zaindu bear zuen tokitik Primo de Rivera Jenerala agertu
zan, kañoi eta guzti... Lizarraga'k Itziar'en bertan topa zuen
Primo de Rivera; baña, eraso egin bearrean, aurrera jo zuan.
Parean pasa ziran biak eta alkarri agur beroak botatzea bes-
terik ez zitzaian falta. An utzi zuen mendian Santa Kruz
etsaien eskutik erailla izateko.

Estu—aldi aretan, bakoitzak al zuen tokitik iges egiteko
agindua eman zien Santa Kruz'ek illunakin batera eta goi-
zean Itziar'en alkartzeko guztiak. Geienak an agertu ziran
egunsentirako elizaren inguruan. Ango alkate—ordekoai
agindu bat eman zion zorrotz: Biltzeko errian zeuzkaten
petroleo lata guztiak, utsak eta beteak; gardian artu, eta
Deba ra jetxi ziran. Meatxu egin zien debarrei, erria erreko
zuela, baldin dorreko karabineroak andik jetxi eta beuren
armak ematen ez ba'zioten...

Bizia barkatuko ziela...

Meatxua bakarrik ez zan izango, eliz atariko karaitz

arriak erreta bait daude... Dana dala, iskilluak eman eta zamarrak ere bai. Abenduko eguraldi otzak ziran aiek...

Santa Kruz Mutriku'ko zubitik ez zan pasa eta ara nun agertzen dan, Itziar'tik beera, Primo de Rivera, txakurra erbiaren usañera bezela; baña, erbiak alde egin zion Berriatua'raiño gelditzeke eta andik Ziortza'ra, gaueko atsedena artzera...

Lizarraga eta Santa Kruz'en alkarrenganako gorrotoak estanda egin zuen Aia'ko arazo onetan. Eta etsaien eskutik erail ezin izan zuen gizona, Aia'tik bizirik ateratako Santa Kruz, Lizarraga berberak fusilatzeke agindua eman.

Ez zan, ordea, agindu ori Santa Kruz'en aurkako lenengo agindua: Azaroren asierako egunean, Santa Kruz burru-kara sartu zala Dorregaray Jeneralak jakin zuanean, onela esan omen zuan: 'Nik apaiz ori, arrapatzen dedan egunean, garbituko det'. Zergaitik? Berari noiz sartu bear zuen, esan ez ziolako; bera bait zan Euskal erri eta Errioxa'ko karlista guztien buru.

Beste etsai bat, Dorronsoro Ataun'goa izan zuen gure Don Manuel Santa Kruz apaizak. Nor zan Dorronsoro? Gipuzkoa'ko karlisten Diputadu Nagusia, gudaroste osoaren arduraduna: janak, armak, jantziak, gauza guztiak, zeuden bere mende. Orregaitik, Aia'ko aretan, Santa Kruz'ek 15.000 kartutxo eskatu eutsozan eta erantzuna: 'Kartutxo zaarrak betetzeko'... Biltoki bat zeukan Peña Plata zeritzan, Frantziako mugatik gertu, Etxalar inguruan eta andik irtezen zuten Gudaroste batek bear zituenak eta danentzako zeuden prest, Santa Kruz'entzako ez ba'zan. Arentzako iñoiz ezer ez. Beingo batez, ara joan eta bosteun praka arrapatu zizkion Santa Kruz'ek, bere mutillentzako bear zituenak. Milla bidar bota zion lapurketa ori aurpegira apaizari...

Beste medalladun jeneral karlista, Santa Kruz'en etsai, ValdeEspina degu. Santa Kruz Bidasoa'ko Bera'ra berreun gizonekin etorrita zegoen, beste irureun Aralar'en utzita. Artan, gaeuz eta ixilka, etsaien antzera, etorri zan Bera'ra Valde-Espina bere indar eta Lizarraga'k utzitakoekin: danetara, milla gizonetzko. Erriari bira osoa eman zion, erdian Santa Kruz arturik bere berreun mutillekin. San Fermin eguna zan: Uztailak 7.

Bigaramonean Jeneralak, beregana etortzeko ordena bidaldu zion, izketaldi baterako. Santa Kruz'ek entzungor egin zion eta orduan, Konpañi oso bat bota zion etxera, indarrez ekartzeko. Santa Kruz'ek ez zuen karlisten arteko burrukarik nai, eta iru lagun artuta, joan zan Valde-Espina'rengana. Onek, Don Carlos'en eskutitza erakutsi zion. Erregearen agintea zekarren Santa Kruz'entzako: alde egiteko Frantzia'ra biurri naaskante bat besterik ez zalako eta karlistentzako kaltegarri.

Valde-Espina'k agindu zion emango ziola urrengo egunerako, Uztailak 9, Frantzia'rako bidea zabalduko zion txartela. Santa Kruz fidatzen ez, eta gau artan bertan, alde

egin zuan, egoitza Valde-Espina'ren zaindaries inguratutik egon arren... Goizean goiz, ezpañak miazten, Lizarraga agertu zan Bera'ko errian, bere etsaia kaiolan arrapatuta zeukelako. Baña, Santa-Kruz'en billa joan ziranean, txoria alde eginda zegoen... Nola, baña? Zaindariz inguratuta egon arren, alde egin digu berriro... Bazuan artarako sen berezia.

Santa Kruz'en ibillerak

Gau aretan iges egin zuen Frantzia'ra, lau kapitan lagun zituela. Bere asmoa zan Don Carlos berarekin itz egitea; baña egun artan bertan, erregea Sara'tik Zugarramurdi'ra sartu zan.

Santa Kruz eta bere lau kapitaneak, muño batetik begira egon ziran Don Carlos'ekin zijoan taldeari: markes, konde eta galartsu asko baña ganorazko gudaririk gutxi. Santa Kruz'ek bere kapitanei: "Emen benetako karlistarik ez dator; auekin ez dago gerra irabazterik". Itxura, besterik, ez.

Santa Kruz eta bere mutillak beste era batera oituta zeuden, gogor eta kementsu; erregearekin zetoztenak, berriz, biguñak eta nekerik gabekoak ziruditen. Izar asko, domiña asko, galartsu asko... Geiegi gauza onerako.

Santa Kruz'ek Pirine mendietatik, Leiza'ra, eta andik Aralar mendiera; emen Ataun'go San Gregorio auzoa artu eta andik Aizgorri'ra Araba'ko errieta'raiño... Gau ta egun, etenik gabe, ibilli oi ziran bizkor eta arin; era orretara, golpe bat emen eman, eta bestea espero ez zuten urruneko baztar batean... Don Carlos'en inguruko lagunak eta bere Jeneralak, bigun oituak, erosoago eta lasaiago saiatuak, ez ziran bat etortzen Santa Kruz'ekin... Orregaitik, edo, Don Carlos bera ere Santa Kruz'en aurka gertatu zan, Jeneralen esanetara... Apaiz gizarajo bat, militar mailla altuenetako Jeneralekin eztabaidan, alajaiña...

Gipuzkoa'k zortzi batalloi zitun; bat, Azpeiti'koa, Bizkaia'ra pasa zuten; gelditzen ziran zampirak, Lizarraga'ren menpekoak, Santa Kruz'en alde zeuden naiz eta, apaiza fusilatzeke agindua artuta egon. Goraka artzen zuten ikusten zuten bakoitzeko.

Aizkeneko illebeteetan, maiatza eta ekaiñean batez ere, erririk erri ibillia zan, izugarriko agurrak eta festak sortzen leku guztietan jendea zoramenak artuta... Bitarte orretan, lau jeneral triste Don Carlos'en aurrean, ekin da ekin, esan da esan, apaizaren aurka... Aizkenetako euren ulburua lortu zuten eta 1972'an VII'aren 9'an, Frantzia'ra iges egin bear izan zuan Erregearen aginduz.

Berri txar orrek tristura sartu zion euskal erriari biotzean.

Santa Kruz'en aizkeneko ekintza ausarta

Lau illebete zeramatzan Frantzia'ko desterruan, Lizarra-

EUSKAL EDESTIA

ga'k bi apaizaren ofizial eta lagun arrapatu eta fusilatu zituenean. Santa Kruz'ek, burrukarako bear zuen dirua, armak bezela, Gipuzkoa osoan sakabanatuta zeuzkan, base-rietan bezela, kobeetan ere... Aiek ekartzera bialdu zitun biak Santa Kruz'ek; eta artan dabiltzala, Lizarraga'ren eskuetan erori ziran. Bai onek laister garbitu ere.

Lizarraga'ren gaiztakeriak biotza urratu zion apaizari, eta burrukara berriro itzultzea erabaki zuen. Lizarraga Asteasun kokatuta zegoen aspalditik, Tolosa'ri erasotzeko asmoetan: inguru guztiko mendietan konpañiak zeuzkan zabaldua, bera erdian artuz, segurantz osorako.

Santa Kruz'ek. Abenduko 6'tik 7'rako gabeen, mugatik Berrobi'ra jo zuen, frantzes, español eta karlista muga-zai-ñak iruzurtuta gero. An, bereak izandako bi konpañiekin alkartu zan eta Asteasu aldera jo zuan. Bidean, beste zortzi konpañiek jarraitu zioten.

Neguko egunsenti aretan, zortziretarako, amar konpañiak Asteasu'ko emparantzan zeuden errenkadan zutik, Lizarraga eta Estado Maiorra elizan sartuta, Meza entzuten zeudelarik. Eskuetan zeukan merezi zuten zigorra emateko aukera. Baña, ez zuen nai, inolaz ere, karlisten arteko burrukarik, eta taldetxo bat bialdu zion elizara, berarekin itz egiteko prest zegoela esanez. Ez alperrik; Lizarraga'k eliz—ataritik, bereala aide egiteko agindu zion, gerrarik nai ez ba'zuen.

Konpañi batzuek Lizarraga'rekin zeudela ikusirik, eta karlista odol—ixurtzerik nai ez, enparantzan ordenan jarriak zeuden bere amar konpañiak artu eta aide egitea erabaki zuen... Eskuan txapela buru gañetik eragin, 'Gora Jainkoa' eta 'Gora Fueroa' ots agiñez, martxan jartzeko agindua eman zien amar konpañiei. Oñati'ra joan eta an zeuden Gipuzkoa'ko Junta Jenelei makurtu ziran...

Bera, berriz, Santa Kruz, Frantzia ra igesi. Nola? Orixen ez dakigu, Irun'dik pasa zala besterik. Aingerak bezela, esku—artetik eskapatzen zien. Oraingo onetan, betirako: ez zan geiago Euskalerra'ra itzuli... An zebillen batetik bestera, bere burua izkutatu eziñik; baña, España'ko Gobernuak Frantzi'koari Santa Kruz'en extradizioa eskatu zionean, orduan Londres'era baztatu zan.

Santa Kruz mixiolari

Berealako batean, Londres'etik Ameriketara mixiolari, karlisten azken gaiztoa aurretik asmatuz. Berak aide eginda gero, ibilli ziran ibilli beste iru urtez burruka negargarri aretan ezer zuzenik egin gabe, ondamentia Euskalerra'ri ekarriz; gauzak asieran baño okerrago aizkenean...

Ameriketean (Colombia) mixiolari, ezagutu zuen gerra-aren azkena. Ainbeste Jeneral, ainbeste medalladun, ainbeste galartsu eta ainbeste izar... Danak agintzeko; inor gutxi aginduak betetzeko eta lanerako. Orra su—ziri festa asperga-

rri ura nola amaitu zan, ez Jainko eta ez Fuero. Azkenik, ezta erregerik ere...

Berrogeita amar urteetan mixiolari izan ondoren, 1926'ko Dagonillaren (Abuztua) 10'ean il zan Pasto deritzan Colombia'ko errixka batean, Andes mendietan, 2.800 metrora. An utzi zitun bere ezurrak betirako, Euskalerra'rekin amesetan. Urte aretan España'n, indarkeriz agintzen zuan Primo de Rivera Jeneralak, Santa Kruz'en atzetik ibillitako beste aren illobak.

Mendietako indioak zitun maite eta auzoetan biltzeko, turuta bat jotzen zuan, gerratean bezela. Mututu zitzaion eta bere emengo lagunei eskatu zien beste bat. España'ko Errege Alfonso XIII'garrenak, ori jakitean berak bialdu zion beste bat, Frantzia'tik ekarria, otzenagoa bait zan emengoak baiño.

Turuta ori Pasto'ra illaren 10'ean eldu zan, Santa Kruz gorpu zegoela. Eta, beste mundurako ez zuan bear Orra gizon bizkor baten amaiera. Tximista baten antzera jotzen zituen etsaiak eta, askok diote, bera izan ba'litz indar guztien buru, orduan, beste kuku batek joko ziola Euskalerra'ri.

Zumalakarregi lenengo gerratean eta Santa Kruz bigarrenean, biak eduki zuten Euskalerriko etorkizuna eskuetan: Zumalakarregi bala galdu batek garbitu zuen Begoña'tik Bilbo'ra begira dagoela eraso jo aurretik; Santa Kruz, berriz, Don Carlos'ek berak, bere jeneralen aolkuz, bota zuen Ameriketara mixiolari.

Burruka aiek ezkerok dabil Euskalerriko barrua sosegu gabe, su—mendiak beti lertzeko arriskuan dabilzan antzera. Espartero'k asitako lana, Franco'k borobildu; Franco il zan, baña ondorengo burruken sustraiak, urrutitik datoz: XIX'garren mendean here askatasuna eta bizi—izatea kendu zientetik. Indarkeriaren oñarria politikoa da, berreun urte auetan gauza asko bota izan badiote gañera ere.

Espartero'k 1839'an Fuero'aren arbola, azpitik ebagi zuen bere ezpataz. Eun unte beranduago, 1939'an Franco'k aizkena eman arbolaren mokor—ondoari... Baña, sustraiak an gelditu ziran... eta gero agertu dira bizirik dirautela.

Deban 1998-VII-19'an.
ARRINDA'TAR ANES.



ERRIEN ASKATASUNA

JAINKO'ak, askatasun osoan egin ginduzan gizonlema-kumeak, bai erri lez be. Askatasunaren itza, adiera edo zentzutasunean, ez—berdintza askogaz osatzen da. Erriaren askatasun egoki lez erabiltzen dot emen, abenda lez; bearezko oinarri—kopuruan, geiago edo gutxiago daukazan berezko gai—indarrak giza—taldeak, benetako erria izateko, da au.

Olan nabarmendutako erri oneik, berezko egarri bat lez, beti aleginduko dira aske izaten. Beti izan gurako dabe, eurai dagokien mundu onetako lekua beteten, berezko eta bearrezko eskubideagaitik aske izateko: euren izen—abizenak gurako dabez euki eta zaindu ludi onetan, beste alkar—kopurua edo enda diranen antzera.

Norbait edo elkar—kopuruarentzat, aurrerantzako bizi—bidea bakarrik ibiltzea ezinezkoa dala, ondo aituten da gaur, gizarte, jakintza, politika, salerosteko arrem—mekanikoak erakusten daben lez, batera joatea eskatzen dau, ludi onetako gizon ospetsuaren bearrezko eginkizunak obeto bananduta eta erreztasun aundiagoaz eroateko. Une ontan, mundu osokoa ez bada be, Europako lurraldera inguratuta, argibide ona da Europak artu dauan alkar—tasunerako bidea.

Asmorik aundiena da, bai gure erriarentzat be; baina, gutziz demokrazizko itxura baten. Enda edo erri—arteko demokraziaz aituten dot: alkartea osotzen dauan guztiaren izen—abizenekin beteta, bai, alkarreak bear dauan ondo ibiltzeko baktxaren lana eta arduraz betetea, gizarte—demokrazizko arr—eman baten barruan.

Errienaldi au, eta joera onegaitik, ez dau esan gura bakarrik euren izen—abizenak iraun daitezcan denboran zaan—ak diralako, bai tokia, lekua, euren lurra! bizi al izateko be; "ez Europako ego—mendebalean dauzan lur—besoan bakarrik, Europak daukazan berezko erri edo enda guztien artean baino. Baktxari berea emoteko, bide bakarra da, bai gaur egun eta len esan dodan lez, lan—ardurazko tresnak, gizarte, politika eta abar, erri—arteko ordezkartzaren eta neurri antza baten bizitzaren erreztasunerako. Europako bake eta askatasunaren egarriak, berez eskatu eta erakutsi egiten dau, zer egin bear dan danon askatasuna lortzeko. Erri edo enda guzti onein artean, bat, EUSKALERRIA DA!

Gaur ezin dana zinetsi edo ulertu da, lau borroka gogon—ak su—izkillukin irabazi egin dauskuezalako, ainbeste atzeratu izatea, gizon/emakumeen zori—onerako amets—demokrazizko bizitza au; ez euskaldunaren egarria beteteko bakarrik, bai erri guztiak daukazan enda edo berezko bardintasun orregaitik.

Arpegia, egoen azpian izkutatuz egiteagaitik, ez dira konpontzen gauzaren arazoak, eta gutxiago, erri edo enda bateko nortasunaren bizitza izaten bada.

Askatasuna galdu gendun denboratik ona, gure egoera txar eta Madrilgo jaurkintzak zapalduta egotea, euskaldunen gertakizuna, Galileo Galileiri gertatu iakon antzerakoa da; orduko denboratan egon ziren zuzmari aundi areik, euren argitaratze ain garrantzizkoak munduan birakatuaren gora—beran bere ardatz—inguruan, ezinbestean galarazo eutsoen oneik Galileori beren asmakuntza ezeztatzeko, eta ori, bera sutan ez—erretaren orde. Galileok irurogeta—amar urte lepoan eta belauniko euren aurrean, berentzako esate—eban: "ala ta gustiz be, mundu au biraka dabil". Eta gaur badakigu orduko eun—milla kilometroko abiaduran dala. Bardin gertatzen da gure erriarekin!

Gure erria, zaarra edo antzinakoa izateagaitik, irakas—aldi asko euki dauz edestian zear, eta orregaitik demokrazizko arremantetan bete—betean bizi izandakoa da; begitu bestela gure legeak, izkuntza, oiturak, erri—arteko arremanak eta abar.

Borroka baktxaren ostetik, indar, sinis—bete edo uste—oso aundiagoaz urten garala egia da!; baina gaur ardi—galduen antzera gabiltz, aitu ezinean. Gizarte maillan eritxi ez—berdinekoak izanda be, abertzaltasuna bakarra dala aitu ezinean, eta orregaitik ELBURUA aurkitu ezinik.

EUSKALDUNA!, abertzaletasuna bakarra da, ERRI lez, eta bere ordean NORTASUNA eta ELBURU lez; orregaitik alegindu bear gara bakoitza bere gizarte—arloan eta bear—bearrezko eginkizunetan DEMOKRAZIZKO ezaguerara eltzeko, eskatu egiten dauan arauk betetan, baina ABERTZALE lez!, ELBURUARI begira. ¡¡ORRI ERRIA DA!!

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN I998'en ABUZTUAREN 2'an



EROAPENA

Nekeak artu ta pakez ta pozez eroatea esan nai dau itz zoragarri onek. Ainbat eta ainbat lagun ezagutu ditugu andra ta gizonen artean era onetako personak. Iraiñak eta burleak artu ta ixilik, eroan izan ditue ainbeste lagunek euskaldun artean bertan. Obeto eretxi eutson neke onek, bakez, artzeari geure Egillearen izenean. Sinismena deika eukan ta guztion Aitaren eskuetan, berez berez, izten eben samin ta arazo ori.

Bein baten, urte batzuk kartzelan egindako gizon bateri bere lagunak esaten eutsoen: Baiña zuk zelan izten dautsazu bakean ainbeste neke jasan eragin deutzun gizonari...? "Ni ez naz iñor jokabide ori epaituteko, guztien Aitak emongo dautso zor jakon saria gizona,". Sinismena ederra da ta sinismendun askok jakatu dabe bide jator orretatik.

Tamalgarria da nekepean ta samin artean bizi bearra, baiña eroapenez era orretan jokatu dabenak bizitzan, gizadiari argitasun aundiak emon dautsez ta egizko poztasunaren atea edegi ditue.

"Zorionekoak negar dagienak, poztuak izango dira ta" Jesusek esan eutson munduari.

Itxura baten gogorra dirudi onu edo kontseju onek. Baiña aundikeriz ta arrokeriz urko laguna zapaltzen ibili ta betirako ondatzea baiño, obe izango da, nekeak eroapenez eroan ta lagun—arte eder baten, beti, zoriontsu bizi izatia. Poz arek deadar egingo dau eroapena goratuz, neke geiago jasan izan ba—neu, orain eta amai barik asmetan dodan zoriontasunean bizi izateko.

Jesusen beste onu edo kontseju on bat gogoratu bear dogu. Iñor izan ba da zuzen, ongille ta sinisgarririk Jesus izan zan ori, biziaren jaubea izanik, mundutar guztiak gaitik bizia emon ta berbiztu zana. Ara, gure betiko pozerako zer dirauskun. "Zorionekoak izango zare zuek nigaitik iraindu ta aurrian erabili zagiezanian ta guzurrez zuen aurka 'nai dagiena esan dagienean. Poztu zaitez: zuen saria aundia izango da" Mt 5, II-12.

Biziaren jaubeak ez dau ikusi nai munduan ez zapal-tzailerik ta ez zapaldurik, baiña gaiztakeri ori jazoko dan ezker, jazarpenduen alde dago. Orreri emon nai dautso indarra egia aurrera atera dagien, munduari argi egin dagioen zuzentasunaren bidez.

Gizon aberats bat ba zan jai aundiak egiten ebazana baita Lazaro izeneko beartsu bat be aberatsaren ate

ondoan, zauriz beterik, etxunda egoten zana. Aberatsaren maitik jausten zanaz, ase nai eban. Txakurrak be etorri ta zauriak miazkatuten eutsoezana. Olako goi—be negargarriak munduan asko dirata, askok eta askok negarra dabe bizitza gidari. Egilleak ez dau nai olakorik bere seme—alaben artean, baiña era orretan jokatu dan ezkeroz, Lazarotarrei dirautse, zuena da betiko argia ta poza.



MAITEENAK

Eroapena nai dau
biziaren jaubeak
zoritar artean;
bizitza beartsuak
zoriondu nai ditu
beti—iraunean.

Jaunak maiteenak ditu
saminpeko semeak
apal jokaturik;
orreik nai dauz zoriondu
zerutar eztaietan
graziz indarturik.

PAULIN

IZENA EGOKIRO IPINTEN

Bilbon, 1998ko bagilaren 30ean

Ararteko jaun ori!

Badira 21 urte vire izenaren erabilpen ofiziala normaldu nebana, sasoi atan orretarako eskatu eustena ondo bete ostean, jakina. Arrezkeroan, edozein eratako leku eta agiritan, gurti—gurtietan, agertu izan da vire benetako izena eta besteko barik onartua eta erabilia izan da an—or—emenka.

Ara non, baina, leengo astean nortasun agiria barriztzen joan bear izan nebanean, Espainako poliziaren datu basean, nire izena agertu bearrean, izen frankistea agertu jatan. Ni zurtz eginda. Itaundu neutson, bada, funtzionariari zer dala—eta a izena agertu zan eta ez neurea. **Niri neuri jagodan beste izenik. a baino, ez ei dago eta neurena erabili gura izan ezkerroan. jaiotza agiri literala eroan bear neutsola** erantzun eustan. Antza, izena normaldu genduan sasoi atan eurek egindako uts administratiobogaitik, guk, orduan betebearrekoak ondo baino obeto bete genduzanok, ondorioak eroan bear doguz orain. Ori, bai, itzela! Azkenengo 21 urteotan eurok, Espainiako poliziakook, nortasun agiri bi, pasaporte bi eta gida—baimen bi emon deustez, dan—danok nire benetako izena agirian dabela. Orain, ostera, euren datu basean frankismoaren datuak agertzen dira barrian. Benetan susmagarria, gero! Eskatutako agiria eroan neutsenean eta nire txandeari itxaroten nengoala, ara non erreskadan nire aurrean egoan beste nonori, abizenaren bat dala—eta, gauza bera jazo jakon. Arek be, nik lez, euskalduntasuna izan eban errua, aurki.

Onetatik guztionetatik ondorio bi atara neikez:

1.—Frankismoaren datu basea darabile oraindikarren, aurki. Or norberak pentsatu leike, amnistia zabaldu ebanean, ez ebela esaten eben guztia (edo bape) ezabatu. Badi-rudi, demokratizazioa ez jakola, oraindikarren, Espainiako poliziaren "agiritegiari" eldu.

2.—Benetan oker administratiboa izan bazan, asko da, bada, euskal izen eta euskal grafiaz idatzitako abizenok, eurok eta ez besterik, dalako oker arek eragin izana. Au neuri sinisgatxa begitanduten jat, beintzat. Batez be, aurrean esandakoa gototan artu ezkerroan.

Idazki onegaz batera, nire protesta eta sumindurarik sakonena eldu eragin gura deustudaz. Gure Errian olango bazterkeria eta umilazinoak amaitu ziralakoan dagozanen jakinerako eta arazo onek kalte egin edo zeozelan eragin leikien beste euskal erritarrak (zu zeu tarteko, Ararteko

jauna) jakitun imintea izan da nire asmoa. Beste aldetik, orrelangorik ban-ian jazo ez daiten, sendoro ekiteko eskatu gura deustut zuri EAeko Ararteko zaran Xabier Markiegi jaunari.

Arazo onetan zure jarduna oso—osokoa izango dala—koan, adeitasunez agur egiten deustut.

Joseba Iñaki Prieto Urrutia

N.A. znb.: 14.247.625

P. Kareaga enparantza, 3

48014 BILBO—BIZKAIA

Tfno. znb.: 94.4753179

ITURRIETA

Gabon gabian oituten dogu aparti txit berezia, Iturrietak esan dauanez janari onez josia; lebatz ederrez ta marraskuluz ondurik jale guztia, ta Errioxa, lur ederreko, ardo baltzez igurtzia.

ZEBERIO

Zeberiotik mendian gora doaz artzaiñak Gorbeira, ardi txuriak ikustearren euren lanaren erara; illuntz aldean esne batzea ta gaztaien egikera, urrengo goizez opil zuriak eroateko plazara.

LAUAXETA

Oi, Lauaxeta agurgarria, eusko mendiko lorea, eguzkipean artu zenduan urrezko esaerea; zure aldetik alegin osoz landu zenduan jakintza, olerkari lez, garaiz, eldurik gorengo gallur maillara.

Gizonak daukaz almen eder bi biotza eta burua, onen bitartez otseinduteko Euskalerriko jendea; zure gurari onberatsuak zabaldu eutzun atea, ta oso osorik eskeini zendun odolez bizi guztia.


PAULIN



EUSIUMMZIUZZK

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO